



PRENTSA-OHARRA

Berdintasuneko ordenantza bat eta eraso sexisten kanpaina auzo eta festa gunetara helaraztea; horra Berdintasun arloko zenbait erronka 2018. urteari begira

Herritarrek eta erakundeek eraso sexistei erantzuteko protokoloa erreferentea izan zen 2017an beste administrazio batzuetarako

Iruñeko Udalak emakume eta gizonen arteko berdintasunaren alde lan egiten jarraitzen du. 2017an egindako jarduketari aurrean Iruñeko III. Berdintasun Planean (2016-2022) ezarritako esku-hartze esparru bakoitzean gauzatuko diren jarduketak batuko zaizkie. Horien artean nabarmentzekoak dira ordenantza bat idatzi eta onestekoa, genero-ikuspegia udal-aurrekontuetan txertatzekoa eta webgune propioa sortzekoa. Horiek dira 2018 honetarako aurreikusi diren jardueretako batzuk. Berdintasuneko Alorrak jarraituko du emakumeen ahalduz ardatz duten prestakuntzak eta jarduerak programatzen, eta Udalak egiten dituen programa, politika eta plan guztietan genero-ikuspegia zeharka txertatzeko lanari eutsiko dio.

Hiria esparru gisa hartuta, espazio publikoan emakumeak ikusgarri egiten jarraituko du, eta espazio horiek emakumeen beharretara egokitzea bilatuko da. Esate baterako, prozesu partizipatibo bat bultzatuko da, xede izango duena herritarren proposamenak biltzea, auzoetako festa-batzordeen bidez, hiriko diseinu, segurtasun, etxebizitza, garraio eta abarren hobekuntzari lotuta; asmoa da auzotarrek laguntza ematea botere publikoei bermatzeko ez direla gune kritiko berriak sortzen eta daudenak desagertzen direla.

Halaber, *Pamplona libre de agresiones sexistas/Eraso sexistarik gabe Iruña aske* estrategiari eutsiko zaio, bereziki festa- eta aisialdi -gunetara, ez dadin halakorik gertatu; eta gaueko festa-zein aisialdi-gune pribatuetan indarkeria sexistari aurrea hartu eta erantzuteko protokolo bat sortu eta onesteko lan egingo da. Komunikabideak estrategia horretan engeiatzeko, Sanferminetan zehar kazetaritza-jardunbide onenak dituenari sari bat emango zaio. Berdintasun eta LGBTIko zinegotzi ordezkari Laura Berrok gaur goizean aurkeztu ditu 2018ko ildo estrategikoak, eta 2017an egindako lanari buruzko balantzea egin du. Hori guztia joan den otsailaren 28an aurkeztu zen Emakumearen Kontseiluan, 2017an lau alditan bildu zen foro bat.

Ordenantza bat eta genero-ikuspegia aurrekontuetan





2018rako aurreikusitako neurriak esku-hartzeko lau esparrutan banatu daitezke: Gobernantza; emakumeen ahalduntze eraginkorra eta balio-aldaketa; zaintza-lanen aintzatespena eta erantzunkidetasuna; eta emakumeenganako indarkeria errotik desagerraraztea, hiri seguru baten esparruan.

Gobernantzari dagokionez, aurten Berdintasun Unitatean txertatuko dira koordinatzailearen figura eta NUPEko Esku-hartze Sozialeko Masterreko ikasle bat, praktiketan. Egun, Berdintasun Unitatea berdintasuneko hiru teknikarik osatzen dute, zinegotziarekin batera –orain zinegotzi ordezkari mailarekin– lan egiten dute, eta iaz herritarren aintzatespena jaso zuten, Udaltzaingoaren eskutik, egindako lanagatik.

Berariazko ordenantza bat sortu eta genero-ikuspegia aurrekontuetan txertatzeko prozesua abiatzeaz gain, aurreikusita dago, batetik, barne-prestakuntza ematea administrazioan bertan, betiere Udalean genero-berdintasunaren arloan dauden prestakuntza-beharrak aurrez aztertuta; eta, bestetik, zenbait prestakuntza-ekintza pilotu egitea, etorkizunean prestakuntza-ibilbide bat diseinatze aldera. Gainera, herritar guztiei begira, 2018an erreferentziako webgune bat sortuko da, berdintasun arloko gaiak berariaz jorratzeko.

Ahalduntzea: emakumeen etxe bat

Emakumeen ahalduntzeaz eta balio-aldaketaz bezainbatean, Berdintasuneko Alorrak hainbat ekintza prestatuko ditu urtean zehar. Prozesu partizipatibo bat bultzatuko da Emakumeen Etxe bat eta Ahalduntze Gune bat sortzeko elkarte-ehun feministarekin eta hiriko emakumeekin, praktika horizontalak eta behetik gorakoak abiapuntu hartuta. Zenbait topaketa diseinatu dira prekarietatearen eta zaintzaren gaiak lantzeko, xede hartuta azpimarratzea gero eta emakume gehiagok pairatzen dutela lan-prekarietatea eta etxeko-lanen banaketa desorekatua, eta maskulinitateei buruzko jardunaldi batzuk ere egingo dira, *Zer dira gizon-taldeak?* izenburupean. Orobat, kontsumoari ikuspuntu kritiko batetik heltzen dioten mezuak hedatzeko ahalegina, eta eraso sexisten gaitzespen aktiboa mantenduko dira, baita aisialdi-testuinguruetan ere.

Ikuspegi horrekin, aurten ere sanferminetan aritzen diren komunikabideak eta hedatzen dituzten edukiak ikertzen jarraituko du, eta jarraibide onei buruzko lantegiak egiten. Zentzu horretan, Udalak sari bat sortuko du: *Saria, Sanferminetako kazetaritza praktika onenei*.

Hiri segurua eta emakumeendako guneekin

Hiria emakumeendako esparru aktibo gisa izango da lan-ildoetako bat, orain arte bezala. Alde batetik, sistema partizipatibo bat abiatuko da, proposamenak biltzeko emakumeen segurtasunarekin lotuta dauden alderdiei buruz: hiri-diseinuaren hobekuntza, segurtasuna, etxebizitza, garraioa, eta abar. Proposamenak auzoetako festa-batzordeen bidez jasoko dira. Berdintasun Unitateak, haren barneko lanean, Sanferminetako Gune Kritikoei buruzko ikerketa (azterlan bat segurtasunari buruz, emakumeen esperientzia oinarri duena) helaraziko die gaiarekin zuzeneko lotura duten Alorrei.





Bestetik, Emakumeak izendatu Iruñean lantaldea 2012az geroztik egiten ari den lanari jarraipena emango zaio, hiria emakumeen espazio gisa aldarrikatuta. Testuinguru horretan, Iruñeko *Emakumeen mapa* eratuko da, eta oroit-plaka bat kokatuko da Carmen Baroja jaio zen kalean, Alde Zaharrean. Halaber, *Bizi-pilulak* grabatzeari ekingo zaio, ekimen bat non emakumeak protagonista baitira, gehienez ere 5 minutuko iraupena duten dokumental-piezatan. Horrez gain, etxebizitzako politika publikoen arloko jarraibide onen ikerketa bat aurkeztuko da, abiapuntu izango dena hirigintza eta generoari buruzko jardunaldi bat egiteko.

Gainera, Berdintasuneko III. Planaren esparruan, Gizarte Ekintzako Alorrak ere zenbait jarduketa egingo ditu: sentsibilizazio-jarduerak egiten jarraituko du ikastetxeetan (EUAZekin elkarlanean); prostituzioan aritzen diren emakumeendako enplegarritasun-ildo berriak garatuko ditu (EUAZ, EISOL-Lanera Bideratzeko eta Gizarteratzeko Lantaldea eta Udaltzaingoarekin); eta besteak beste, esperientzia pilotu bat abiatuko da genero indarkeriaren biktima adingabeekin lan terapeutikoa egiteko, txakurrekin. Baita ere, Berdintasuneko Alorrek koordinaturik, txosten bat egingo da, genero- eta berdintasun-ikuspegitik, baloratzeko beharrezkoa den Larrialdiko (24 h) Gizarte Zerbitzuen Unitate bat sortzea.

Zaintza-lanak eta erantzunkidetasuna

2018 jarraipena emango zaio zaintza-lanak eta erantzunkidetasuna aintzatesteko ildoari. Edoskitze- eta zaintza-guneen sare bat diseinatu da, eta horien mapa bat egingo da; Haur Planarekin eta Adinekoen Plan Zuzentzailearekin lan egingo da, zaintza-lanekin loturiko alderdiak hedatzearekin zerikusia duen ororen kariatara. Azterlan bat egingo da bateratze eta erantzunkidetasun arloko jarraibide onen gainean. Sanferminetan bizirauteko ikastaroak areagotuko dira, eta eguberrietan ere emango dira, sukaldaritza-, garbiketa- eta lisatze-lanetan trebatzea bultzatzeko.

Berdintasuneko Alorrak ekoizpen-ereduaren jasangarritasuna aztertzearen aldeko apustua egingo du (APUEko berariazko prestakuntza baliatuta) eta elikadura-burujabetza eta generoari buruz hausnartzeko parada ematen duten ekimenak bultzatuko ditu, Ingurumen Hezkuntza Museoarekin edo beste udal-zerbitzu zein -espazioekin koordinaturik.

2017: lan-ikuspuntu globala abian da praktikan

Berdintasuneko Alorrak 2017an langile gehiago eta aurrekontu handiagoa izateak bide eman dio Iruñeko Udalari lan-ildo gehiago garatzeko eta horiek eragin handiagoa izateko iaz, eta horrek datu zehatzak ekarri ditu. Aurten ere Iruñeko III. Berdintasun Plana eta haren jarraipen-bideak ezartzeko barne-lanean aurrera egin da, eta Alorren arteko koordinazio-sistema bat gaitu da. Halaber, Iruñeko funtzionarioei aukera eman zaie berdintasun-gaietan trebatzeko online-prestakuntza eta lan-saioak egiteko.

Herritarrei zuzenduta, iaz ere Alorraren jardueren inguruko informazioa eman zen hainbat bideren bidez, sare sozialak barne; eta eskura izan eta mantentzen dira interesgarriak izan daitezkeen zenbait agiri, adibidez, gizon eta emakumeen arteko desberdintasun





sozioekonomikoen inguruko ikerketa (2007-2017), hirian lehen aldiz 2017an egindakoa. Horrez gain, Alorrak diru-laguntzak emateko duen kopuruak gora egin du, eta horien oinarriak aldatu ditu, irismena handitzeko. Halaber, mantendu egiten da hitzarmena IPES Dokumentazio-zentroarekin, Emakumeen Dokumentazio Zentro eta Liburutegia, genero-arloan espezializatua.

Ahalduntze eta Partaidetzako Udal Eskola berriak (APUE) hasieratik txertatu ditu programazioan berdintasunaren arloko edukiak, lehen ere Civivox Sareak eta teknologia berrien berriazko EMATIC zentroak (lehen Compañía Zentroa) egiten zuten bezala. Ekintza berriak ere egin ziren, esate baterako, Prostituzioari buruzko Gizarte Eztabaidaren I. Jardunaldiak edo *Sanferminetan bizirik irauteko kita* ikastaroa.

Iruñeak *Herritarrek eta erakundeek eraso sexistei erantzuteko protokoloa* (2015ean eta 2016an idatzia, 2017an berrikusia) aurkeztu zuen, bai eta hari loturiko praktikak ere, hiru unibertsitate-forotan eta lurraldeko hainbat administrazioetan, guztiek ere erreferentetzat jo dutelarik. 2017an ere, Iruñeak jarraitu zuen emakumeen izenak ikusarazten, Lezkairuko Emakume aitzindarien parkean, adibidez. Iruñeko Udalak ere bat egin zuen urtero martxoaren 8an eta azaroaren 25ean egiten diren ekitaldiekin.

Iruñean, 2018ko martxoaren 6an 2018

